

Bernardo Atxaga Bediako Irakurle Klubean hilaren 29an

13. orrialdea

Bertso saioa Zeanurin hilaren 19an

Atzenengo urteetan ohitura bihurtu dan bertso saioa antolatu dau Arratiako Bertso Eskoleak Zeanuriko Udalaren laguntzeagaz. Arrastiko 18:00etan da hitzordua Zeanuriko frontoian. Bertan, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Andoni Egaña eta Jon Maia ibiliko dira bertsotan. **13. orrialdea**



Urtekerea antolatu dabe Athletic ikusteko Iruñean

11. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

200

2014ko urtailaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Diru laguntzak itzuli beharko ditu Incoesak

Incoesaren deslokalizazioa baliogabetu dau epaileak eta Foru Aldundiak 150.000 euro itzultzeko eskatu deutso enpresei.

Beharginen ustez, Bediako lantokia mantendutea posible dala erakusten dau epaiak.

Alfusen be, epai baten zain dagoz. Hamasei kaleratetik lau bakarrik zirala legalak esaten eban epaiari errekursua ipini eutsan enpresek eta bigarren epai horren zain dagoz.

Bitartean, greba mugabakoan jarraituten dabe eta mobilizazioak egiten.

Mobilizazioetan be dagoz Ormazabaleko beharginak. Negarran, Inbisan eta beste enpresa txikiagoetan be burrukan dagoz beharginak lanpostuak mantenduteko edo hitzarmenak negoziatzeko. **7. orrialdea**




Bediako Incoesa enpresea.

ARRATIA

Frackinga debekatzeko ekimena

Fracking Ez Arratiak eta Fracking Ez Zeberio, frackingaren kontrako beste hamar taldegaz batera, teknika hau debekatzeko Herri Ekimen Legegilea aurkeztu eban abenduaren 19an, eta 23an Eusko Lege Biltzarreko Mahaiak onartu eban. Papelak jasotakoan kanpaina bat ipiniko dabe mar txan taldeok, sinadurak batzeako. 30.000 sinadura behar dira legeak aurrera egiteko. **6. orrialdea**



IGORRE

Timoteo Atutxa bekea atera dau Udalak

Timoteo Atutxa Petralanda igorretarraren idazkiak berreskuratzeko beka kaleratu dau Igorreko Udalak. Sei mila euroko ikerketa saria da eta bost hilabeteko epea izango dau egileak lana egiteko. Lana euskeraz izango da.

1936. urteko altxamentu frankistan hil eban Timoteo Atutxa. Timoteoren dokumentu eta idazkiak berreskuratzeko eta historian kokatzeko da beka hau. Eskariak hilaren 28ra arte aurkeztu daitezke. **5. orrialdea**

E.P.A.
Galdakao
www.epagaldaokao.com
Matrikuletako epea, urtalia osoa.
Tfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa

E.P.A.
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

AREATZA

Eder etxean da

Bostonen ebakuntzea egin ondoren, bueltau da Eder Atxutegi Areatzako umea etxera, bertan erreuperetako. Guztiz ondo egoteko denporea beharko dau umeak, baina ebakuntzea ondo atera zala dino Ederren amak.

Rosa Hernandez, *Diez cuentos para Eder*, Homeroren *Iliadaren* adaptazioa egin eban amamari alkarrizketa egin deutso BEGITU. **8. eta 9. orrialdeak**

PDP
laguntza zentrua

Bilbo kalea 6, 2. entr
48.960 Galdakao
94 600 46 02
663 416 655

• Eskola laguntza eta orientazio psikopedagogikoa • Ikas teknika eta ohituraren lanketa • Irakurmen eta idazmen arazoaren lanketa • Arreta goiztiarra • Talde murriztuak (5 gehienez) eta jarraipen pertsonalizatua

centrodeapoyopdp@gmail.com

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Artazia(k)



Ehunak edo antzeko gauza mehe eta lauak ebagiteko erabilten diran tresna metalikoak dira (artásiek, ahoskatuta). Batuaz, guraizeak esaten jakie. Horrezaz gainera, berba hau beste kasu honeetan be erabilten da: 1- insektu luzetxoak, eperdi amaieran matxarda moduko zerko bi daukazana; 2- dantzetan, dantzarien jauzian hanka gurutzatuaren mobimentuari be holan esaten jako; eta 3- berba asko eta arin egiten dauen personeak "artazi onak" daukazala esaten da.

ERETXIA

Inurriak

Gure etxeko sutean sartzean dan inurria legez sartu jaku. Lehenengo frutu inguruan, gero mahai gainean eta azkenik, armario guztietatik hara-hona jabilku bere lagunakaz, bat... gero bi... gero hiru, jadanik gure espazioa berarena da, herria irentsi dau.

Nahinon eta nahinoz entzun geinke; tabernan, dendan, auzoan, etxean, gimnasioan, eskolan, fabrikan... hain da erreza eta erabilgarria.

Gure alabeari be heldu jako haren xarma, boteretsua da bere arma.

Gurea ez al da bera bezain "guaya"?

Irakasle dinosaurio "friki"ok bakarrik erabilten doguna da?

Ez dakigu seduzitzen ala?

Euskaldunok, bere begietatik hasi gara mundu moderno hau ikusten, beragaz amesten dogu, bera sentitan dogu eta bai txistea eta bai esaera zaharra erara jatorkunean bera erabilita botaten doguz:

"Cuando el rio suena...".

Bitartean transmitidu gura geunken ha, eskutik eskura jausten jabilku, eta hor irakasleok badaukagu erruaren zati bat.

Nor da ba Xalbador? Xabier Lete? Eider Rodriguez?

Baina, Athleticekoak, Cristiano, Beyonce eta Belen Esteban gure kuadrilakoak balira legez sentiduten dabez eta guk be euren presentzia igarten hasiak gara.

Sentimentuak, ideak, gorrotoak, kezkak, kejak geureaz adierazoteko arazo itzela daukie eta daukagu.

Hizkuntza komuniketako, sortzeako, esateko, kontetako, jolas-teko, maitatzeko, gozatzeko dala badakigu, baina azkenaldian, ez gara beragaz olgetan, ez doguz bere hiru berba bata bestean ostean jator josten, eta hizkuntzeari ez deusaguz aspalditik aramute-lak kentzean.

Baina berak geure alboan se-



IBON IZA

Irakaslea

giduten dau, igual nonoz gure maitalea izan zalako... edo izango dalako!

Halanda be, ez dauz normal-kuntza proiektuak aituten, ez dala anormala dinosta... bere abenduko eguna ez dau maite eta umeari bera erabilteko eskatuten deusagunean lotsatu egiten da, agian ume hori bestearen jantziakaz jantziago ikusten dau-lako.

Eskolatik urtenda bera eta biok Bilbora joan ginanekoa jatorta burura. Nik "un cortado" eskatu neuntsan tabernariari.

Hori dala eta sano hasarratu jatan. Nik behin eta barriro esan neuntsan beraren alde, abestiak, bideoak, ikuskizunak sortu nebazala, baina ez eustan kasurik egin eta kriston musturrakaz, han joan zan Ledesmatik behera.

Halango baten Arriaga parean topau neban eta sentiduten ne-bala esan neuntsan, barriro ez zala pasauko zin egin neuntsan eta arean konsolau neban.

Gero basoaren metafora ipini neuntsan adibidetzat:

Basoa erdi hutsik edo erdi beteta ikusi geinkela... gurea zeozer berezia zala... ez zala sekula desagertuko!

Baina berak basoak zuloa eukala erantzun eustan.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkainat
Batzen gaitu

MONDRAGON

LUMATUTEN



LAURA RUIZ

Geure gorputza,
geure erabakia

9Oeko hamarkadearen bueltan jaio garanok lehenagoko burrukak miresenez begiratzen doguz. Kaleak hartzeak, grebak, desobediencia ekintzak, okupazioak... Ilusinoz eta harrotasunez kontetan dabez orduko abenturak, eta honek enbidia zitzada bat sortzean daugeugan. Jada ez gara horretarako gai? Sistemeak asimilatu gaitu eta benetako herri mobilizazio iraultzaile eta indartsuak egiteko gaitasuna galdu dogu? Jentarte hibernazio prozesu baten dagoala entzun dot orain dala gitxi; gazteok gara horren errudun?

Ordea, Gallardon lege proposamenak, burruka feministaren inguruan hain ezagunak ez diran hamaika kontu azalatu ditu: Basauriko 11 andrak, autoinkulpazioak, kantu eta gogoetak... Mobimentu feministaren memoria historikoaren bozgorailua zabaltzen hasi da! Abortatzeko eskubidearen aldeko Euskal

Herriko Plataformako batzarretan, abenduak 21eko manifestazio inprobisauan, edota Gurutzetako itxialdi saiakeran ezagutu doguzan andra askok sasoi horreen memorandum baten sentiduten dirala dioe...

Martxan dagoz abortatzeko eskubidearen aldeko plataforma desbardinak Euskal Herri mailan, asanbladak herrialdeka, talde feminista antolatutako gobernuaren eraso bortitzari aurre egiteko. Kantuak eta leloak. Arpegi barriak, eta ez hain barriak. Ilusinoak, bildurra, lana, babesa, eta kaleak gureak dirala di-noan oihartzun geldiezina!

80ko hamarkadara bueltatu gara PPren gobernuagaz? Ziur nago horixe gura ebela. Baina ez dira konturatzen orain gehiago garala! Lehenago egindako lanak bere frutuak emon dituala, eta altxor hori gordeta daukagula. Irabazi genduan, bidean ikasi genduan, ikasten jarraitzen dogu eta orain gehiago dakigu. Lozorroan egoan mobimentu feministea itzartu da, "abortoaren biktima pasibo" deitu gaitue; antza danez eurek ez dabe 80ko hamarkadako kontakizunik entzun...

ZERTZEAN



IRATI BERNAOLA

Gaia jarrita: "Ze asmo
2014ra begira?"

1

Bi mila eta hamalau da dagoeneko eta asmo barriek danok pentsatzeko ingurura begira jarritz aurreneko hainbeste gauza dagoz bertan aldatzeko.

2

Preso ta iheslarien gaia arintzea helburua kontzientzia soziala piztea aurreko zapatuen lortuz elkartzea ta giza eskubideak errespetatzea.

3

Abortoa aipatzeko badago astia inposatu doskue lege basatia Gallardon entzun zazu gure abestia gure gorputza dala gure erabakia.

4

Gazteen epaiketarik urtertik urtera ta herriko tabernak itxteko aukera gelditu daitezela danak bertan behera libre nahi doguz eta gurekin batera.

5

Aipatu behar dogu egoera txarra Alfus ta Incoesak daukate indarra greba mugagabeen jarraitu beharra langile borroka da aukera bakarra.

6

Urte barri honek bebedeko kostea langabeziarekin ez dator bakea etorkizun eskasa dekogu, gaztea suntsitu behar dogu prekarietatea.

BEGI TXINDORRA

Urtero lez eta Euskaltel Iturrimorro Lagun Taldearen babesagaz (Eskerrik asko Isidro!!), aurten be urte amaierako bainu tradizionala ospatu zan Areatzako herrian. Aklimatazioa egiteko, Iparraldeko herrialde askotatik pasau eta gero (atzenengoz Moskun egonda gagoz Volga errekan) Areatzan, Iturrimorroko putzuan amaitu dogu urtea. Ehundaka ikusleen aurrean eta txanpaina eta ostrak sobran dagozala... txas... arima garbitu eta urte osoko katarro guztiak kentzeako, gimnasioetan gau eta egun landutako gorputz eder bi horreek erreka ur hotzetan sartu ziran. Kanpoan jente asko eta uretan jente gitxi, ia datorren urterako gehiago animetan diran. Azkenik... ahaztu baino lehenago... Urte barri on danori eta datorren urterarte!!

Amaia Astondoa eta Montse Bustinza



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odotzargoa
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegatu Zerbako 101
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasobide
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

IGORRE

Timoteo Atutxaren gaineko dokumentuak errekuiperetako bekea

Igorreko Udalak, Timoteo Atutxa Petralandaren bizitza eta heriotzea ikertzeko beka bat emongo dau. Timoteo Atutxa, frankistak fusilau eben Derion 1937an.



Timoteo Atutxaren omenezko plakea Goiko Plazan.

Erredakzioa

Igorreko Memoriaren Bankuak hainbat dokumentu batu ditu eta honetan sakondu guran, dokumentu eta idazkiak berreskuratzeke, eta historian kokatzeko, laguntza deialdia egin dau Udalak. Beka honetarako eskabideak aurkezteko epea hilaren 28ra arte da.

Timoteo Atutxa Igorreko EAJ-PNVko idazkaria izan zan. Derion fusilau eta bertan lurperatu eben 1937ko urri bigarrenaren 29an. Igazko zemendian, Igorreko Udalak omenaldia egin eutsan Atutxari eta plaka bat ipini eban Goiko Plazan, gorazarretan.

Ikerketarako bekea

Ikerketa honetarako, sei mila eurokoa izango da diru laguntzea eta bost hilabeteren buruan aurkeztu beharko da lana. Igorreko Udalak, Timoteo Atutxaren fusilamentuaran urteurrenean, urri bigarrenan, argitaratu eta bananduko dau lana.

Lanak argitaratzeko helburua dauka beraz, eta euskeraz izan behar da. Historia, soziologia, antropologia, zientzia politikak, kazetaritza, edo giza zientzietan lizentziatuak aurkeztu daiek eskabidea. Igorreko Udalak, daukan dokumentazioa aukeratutako personearen eskura ipiniko dau.

Memoriaren bankua

Herriaren memoria jaso eta memoriaren bankua ipini eben mar txan igaz. Jenteak ondo erantzun dau eta Timoteo Atutxaren gaineko informazio asko jaso dabe Igorreko Memoriaren Bankuan. "Informatzailearen erantzuna positiboa, ona izan da. Agozko material interesgarria batu dalako. Dokumentazioaren aldetik, barriz, gitxiago, Timoteo Atutxarena izan ezik" dino Angel Larrea memoria taldekoak.

Igorre dan modukoa izatera zelan heldu dan azalduko dauan alkarrizketa bilduma bat egiten dabiz Igorren. Behar hau egiteko, lau ikertzaile hasi ziran beharrean 2013 urte hasieran eta 1936tik 1976ra Igorren bizi izandakoen testigantzak bidez jasoko dabiz. Angel Larrea historialaria eta Iñintia alkarteko presidentea, Aritz Arrizabalaga Euskal Filologian eta Antropologia sozialean lizentziaduna, Ainara Pujana kazetaritzan lizentziaduna eta Ibai Pujana ikusentzunezko teknikaria eta zine zuzendaria dira memoriaren bankua egiteko enkargua jaso ebenak.

Taldeak hileon amaituko dau alkarrizketak egiten, hau da, ikerlanaren lehenengo fasea. Amaitutakoan bigarren faseari ekingo deusie, DVDa prestatzeari egingo alkarrizketen materialakaz. Izan be, martiaren amaierarako amaituta euki gura dabe DVDa.

ARRATIA

Eskola garraioko begiraleak lan hitzarmenaren alde burrukan

Erredakzioa

Eskola garraio eta jolaslekuetako begiraleak greba egin eben urtailaren 13 eta 14an euren lan hitzarmenaren defentsan eta akordioa lortzean ez badabe greba mugabakoari ekingo deusie 27tik aurrera. Greba deialdia ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak egin dabe. Grebak erantzun zabala izan eban Arratian, -Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan legez- lehenengo egun bietan. Urtailaren 20, 21 eta 22rako be greba deituta dago.

Begiraleak euren soldatak ez dirala igo 2009-2010 ikasturteik "nahiz eta enpresak Eusko Jauriaritzatik jasoten daben dirua urterotertero igo" salatuten dabe.

Autobus eta jolaslekuetako begiraleak lehenengo greba egunean alkarretaratzea egin eben Bilbon

Eusko Jauriaritzaren egoitzaren aurrean. Jauriaritzari sindikatu eta patrolanaren negoziazioetan parte hartzeako eskatu deusie.

Arratiako trafikoan igarri da

Eskola garraioko begiraleen greba dala eta, umeak eskolara eroateko

beste modu baten antolatu behar izan dira gurasoak eta honek eragina izan dau Arratiatik pasetan dan trafikoan. Sindikatuak gurasoai "parkamena" eskatu deusie, kalteuak eurak diralako, baita "ulermena" be, urtebete da-eta, lan hitzarmen barria eskatzen dabizela.



Begiraleak Igorren.

ARRATIA

Udal aurrekontu gehienak zezeilan bozkatuko dira

Erredakzioa

Aurrekontuen araudia aldatu egin da eta udal gehienetan aurrekontuak zezeilan eroango dira osoko bilkuretara botetako. Hileon azken ikutuak eta herritarren ekarpenak gehitzen dagoz zirriborroai, modu

parte hartzailean egin gura dabez eta. Bildu agintean dagoan herritaran, batzartu egiten dira udal ordezkariak herritarraz. EAJ-PNVk agintean dauanetan, barriz, beste modu batzuetan jasoten dabez herritarren ekarpenak. Ubiden abenduan onartu ziran udal kontuak.



Dima.

Areatzan, parte-hartze modua aztertzen

Areatzan herritarren parte hartzea bermatzen dauan modua aztertzen dagozala esan eutsan Josu Basozabal alkateak BEGITURI. "Aurretiko informazioa emon eta gero jenteak eretxia emoteko modua aztertzen gabiz". Igaz, zentroa oinezkoentzat egin ebenean karpa bat ipini eben eta ekarpenak idatziz zein agoz egin eitekezan. "Oso ondo atera zan. Batzarretan beti berberak egiten dabe berba, kutxa bat ipini ezker beste batzuek be emoten dabe eretxia. Hobeto funtzionetan dau".

Hilaren amaitukeran edo zezeilaren hasieran plenora eroateko asmoa daukie Areatzan.

Auzo batzarren bidezko parte-hartzea

Igorren, urte asko daroe auzo batzar eta sektore batzarrak antolatuten, 2014ko aurrekontuetarako batzarrak urrietan egin zituen han.

Herritarren eretxiak jasoteko auzo batzarrak antolatu dabez Lemoan eta Zeberion, barbarako. Diman be, aurrekontuetan auzotarren eretxiak eta eskariak batzeako urtailan egin ditue Auzo Batzarrak. Hamar bat guztira eta atzena, Lamindakoa izango da hilaren 17an. Informazioa buzoietan banandu eban aurretik Udalak, diru kontuen azalpena eta ondorioen barri emonaz.

Zirriborroai azken ikutuak

Arantzazun, Artean, Bedian, Igorren, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion hil honen amaieran edo zezeilan espero dabe plenora eroateko 2014rako udal kontuak.

ARRATIA

Franckinga debekatzeko HEL tramitetea onartu dau Eusko Legebiltzarrak

Frackingaren kontrako plataformak, tartean Fracking Ez Arratiak eta Fracking Ez Zeberiak, Herri Ekimen Legegilea (HEL) aurkeztu dabe Legebiltzarrean, frackinga edo haustura hidraulikoa erabiliz hidrokarburu ez konbenzionalak ateratzea debekatzea eskatuteko, Madrileko gobernuaren ebatzia izan arren, Erkidegoak eskumenak ditu ingurugiroa babesteko neurriak hartzeako eta.

Erredakzioa

Legebiltzarreko Mahaiak atzera bota eban 2013ko zezeilean Fracking Ez Arabak aurkeztutako Herri Ekimen Legegilea bat. Haren bidez, Erkidegoan hidrokarburu ez konbenzionalen ikerketa eta ustiapena debekatzea eskatzen zan baina ez zan aurrera atera. Abenduan, aurkeztutako Herri Ekimena, barriz, tramitetea onartu egin dau Legebiltzarreko Mahaiak. Frackingaren kontrako talde guztien babesa euki dau ekimen honek: Aiaraldea, Arrankudiaga, Arratia, Basauri, Bilbao, Durango, Kuartango, Galdakao, Vitoria-Gasteiz, Ugao, Zalla eta Zeberioko taldeen babesa, hain zuzen be. Orain 30.000 sinadura behar izango dira aurrera egin dagian.

2013an zulaketarik egin ez zan

arren, "frackingaren mehatxuak hortxe segiduten dau. Indarrean egozan baimen guztiak indarrean jarraituten dabe, eta putzuak zulatzeko eskaerak euren bide administratiboari jarraituten deusie. Inork ez, ez enpresak, ez gobernuak ez deusie frackingari uko egin" gogorarazo dabe Fracking Ez taldekoak.

Ubide, Mirua baimenaren eremuan dago eta Arratia eta Zeberio Saia baimenaren eremuan. Baimen honek emonda dagoz.

Zulaketak

Fracking Ez Bizkaia-koak uste dabe aurten zulatzen hasteko baimenak eskatu ahal dituela Bizkaiko hainbat lekutan. Lehenengo fasea lurraren ikerketea eta gero proba sismikoak izaten dira eta gero "putzu bat zulatzea es-

katzen dabe zenbat gas dagoan ikertzeko".

2013ko bagilan, Arratia inguruan proba sismikoak egiten hasi zan TESLA Exploration International enpresa britaniarra SHESA Euskadiko Hidrokarburuen sozietatearen enkargupean. Arantzazun, Areatzan, Artean, Diman, Zeanuriri eta Zeberion proba honek egiten ibili ziran. Eusko Jaurlaritzatik, proba honek fracking zundaketakaz zerikusia izatea ukatu eben. Dana dala, TESLAkoak probak amaitu barik egin eben alde.

Gara egunkariaren arabera, "proba sismikoaren ondoren, frackingeko putzuak egiteko ordua hurreratzen da" eta Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan "diru partidak dagoz Saia eta Enara baimenetan" zenbat gas



UBIDE

Onartu dira 2014ko kontuak

Erredakzioa

Ubiden abenduan onartu zan 2014rako aurrekontua Alkarianien-eko 4 botogaz eta EAJ-PNVko abstentzino bategaz. Aurrekontu honek, 276.946 euroko diru sarrerak aurrekusten ditu eta 228.542 euroko gastuak. Inbersinoetarako 25.242 euroko diru

partidea dago.

Igazko kontuen aldean, aurrekusten diran diru sarrerak apur bat handiagoak dirak, Udalkutxa apur bat igo eta bestea bardin mantentidu da eta. Gastuetan be diru partida handiagoa dago inbersinoetarako, "hilerriko teilatua egin eta inbentarioa eguneratuko dalako" udal iturrien arabera.



Ubideko Udala.

ete dagoan ikertzeko putzuak egiteko. Egunkari honen arabera, ingurumen-inpaktu azterketearen zain baino ez dagoz. Herri Ekimen Legegileak frackinga debekatzea lortzean ez badau, Arratian putzuak egon daitezke urte amaieran edo 2015eko hasieran.

hau: Artean, Diman, Igorren, Ubiden, Zeanuriri eta Zeberion.

Orokorrean, Bildu mozinoaren alde agertu zan eta EAJ-PNVk kontrako botoa emon eban edo abstenidu egin zan. Areatzan, Bedian eta Arantzazun momentu haretan azaldutakoaren arabera, EAJ-PNV "ikerketearen alde" egoan, baina fracking teknikearen kontra. Ikerketeak erakutsiko balue ustiatzeko moduko baliabideak dirala eta teknikea hobetuko balitz kalteak gitxituz, orduan, EAJ-PNV frackingaren alde agertuko litzatekela esan eben. Hau da, frackingaren kontra egon arren, zundaketak egitearen alde agertu zan EAJ-PNV. Zeanuriri, abstenidu egin zan eta mozinoa aurrera atera zan. Lemoan ez zan aurrera atera, Bilduren 4 boto alde eta EAJ-PNVren 5 boto kontra izan zitualako. Bilduk 5 zinetotzi ditu, baina bat kanpoan zan bozketa egunean lana zala-eta.

Mozinoa

2013ko zezeilean Arratia Bizirik eta Bilduk frackingaren kontrako mozinoa aurkeztu eben udallean. Udalerriak eskumenik izan ez arren frackinga debekatzeko, balio sinboliko handia dauka mozinoak frackingaren kontrako plataformetako eretxiz. Mozinoan gauza bi eskatzen ziran. Arratiako udalerritan SHESA daukan Saia Hidrokarburu ikerketa baimena bertan behera geratzea, eta Arratiako udalerriak "frackingetik aske dagoan udalerriri" izentatzea eta "fracking ez" seinalea ipintea udalerriri sarrean. Sei herritan onartu zan mozino

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazino elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazinoak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurriera egindako armairuak
Arde, Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23. behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 06

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-49-54

SESOREAK basolo Emaldi
ERREN ADMINISTRAZIOA
Abokatuak
620. 57.86.04
asierbasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialea E-3 Pabellon (Igorre)

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 75 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@evokah.net

IGORRE

Familia bidezko transmisioa eta eleaniztasuna berbabide Julian Iantzigaz

Erredakzioa

Urtero antolatuten dira gurasoentzako berbaldi-tailerrak Euskera Agoan egitasmoaren barruan eta aurten Iñaki Eizmendi gizarte hezitzailearen eta Julian Iantzi aurkezle famaduaren eskutik eleaniztasunaren gainekoak izango dira. Hilaren 17an eta 24an izango dira tailerrok, bata guraso euskaldunentzat eta bestea euskeraz ez dakienentzat, hurrengo hurrengo, Igorreko eskolan, arrastiko 17:00etan.

Euskera Agoan egitasmoaren barruan kokatzen dira bai eskolan eta bai familian euskerearen erabilera handitzeko Igorreko Euskera Planak bideratzen dauzan ekintza honeek. Helburu nagusienetarikoa bat da gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan daukan garrantzia jabetu daitezana.

Tailerrak

Guraso euskaldunentzako tailerra, "Seme-alaba eleanitzak?" izenekoak izango da.

Berbaldiaren helburua da gurasoak ikustea eleaniztasuna positiboa dala eta ahalegindu behar dirala seme-alabai eleaniztasun horregazko jarkera egokiak transmitiduten. Horren barruan, euskereagazko zelango jarkerak transmitidutea komeniko litzakean be landuten da.

Euskeraz ez dakien gurasoentzako tailerrak be gai berbera jorratuko dau "Las claves del plurilingüismo. ¿Podemos conseguir que nuestros hijos e hijas sean plurilingües?" eta urtailaren 24an izango da.



Julian Iantzi.

Ordu eta laurden inguruko berbaldiak dira eta hartzaindegi zerbitzua egongo da.

Euskera Agoan-eko beste egitasmo batzuk

Gurasoentzako berbaldiez aparte, badira Euskera Agoan egitasmoan gurasoai begirako beste ekimen batzuk.

Berbalagun familian izenekoak, guraso euskaldunzaharrak eta bariak alkartzan dituen Berbalaguna egitasmoaren aldaera bat da. Astean behin euskeraz berba egiteko taldeak sortzean dira eta honen helburua, gurasoen hizkuntza ohituretan eragitea da, guraso euskaldunbarrien euskera maila hobetzea, Arratiako hizkerara hurbilpena modu naturalean egiten laguntzea, eta euskera batua egiten daben gurasoen eta arratiera egiten daben artean hizkuntza-komunitate bakarra osotuten laguntzea.

Gurasoentzako euskera ikastaroak be badira. Euskaltegiagaz alkarlanean antolatzen dira eta Udak diruz lagunduten dau.

Ume jaiobarrien gurasoai begirako sensibilizazio kanpaina bat be badago, "Euskeraz gurot" izenekoak. Ume jaiobarriak erregistretan dabezanean, "euskeraz gurot" ipintzen dauan adur-zapia eta gutuna emoten jakie gurasoai. Gutun horretan guraso-ume arteko transmisioa zein garrantzitsua dan azpimarratzen da.

Antolatutako ekintzetan parte hartu gura dauanak Inazio Zubizarreta eskolako idazkaritzan edota Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuan izena emon ahal dau.

ARRATIA

Incoesaren deslokalizazioa baliogabetu dau epaileak

LAB sindikatuak urtailaren 13an jakitera emon ebanaren arabera, epaileak baliogabetu egin dau Incoesa lantegia deslokalizetako asmoa eta Bizkaiko Foru Aldundiak lekuz aldatu dalako 150.000 euro eskatu deusaz Incoesari.



Pedro Mendo Incoesa enpresa batzordekoak.

Erredakzioa

Igazko maiatzean, Bediako beharginak lanlekuz aldatzeko prozesua hasi eban enpresek, Extremadura eta Soriara bialtzeko beharginak. Epaileak leku aldatze horreek baliogabetu ditu eta Foru Aldundiak 7/2007 Foru Araua aplikauz, jasotako diru publikoak itzultzeko eskatu deutso enpresei. Foru Aldundiaren gobernu kontseiluak urtailaren 14an onartu eban leku aldatzea, eta hori emondako diru laguntzakaz bateraezina da.

Epaia honek Bediako ekoizpena bertan mantendutea posible dala argi itxi dauala dino Pedro Mendo enpresa batzordekoak. Beharginak zortzi hilabete daroz greba mugabakoan, enpresek produktzioa Soria eta Extremadurara eramateko asmoa azaldu ebanetik

Alfusen epaiaren zain

Alfusen be, epaileak neurri baten, beharginai emon eutsen arrazoia. Bere epaian be esaten zan Alfusko kaleratzeak ez zirala legalak izan, eta 16tik 4ra bajatu zituan kaleratzeok. Baina enpresek errekursoa aurkeztu eban eta bigarren

epaiaren zain dagoz orain. Beharginak greba mugabakoan dagoz igazko maiatzetik eta martxa bat egingo dabe hilaren 17an Bediako plazatik goizeko 11:00etan abiatuta enpresa eta enpleguaren defentsan.

Beste burrukak

Igorreko Ormazabalen bost kaleratu egon ziran abenduan, eta plantilla osoari eragiten deusaz enplegu erregulazino espedienteak eskatu dau enpresek. Ormazabaleko kaleratuak dirala eta beharginak mobilizazinoetan dabiz, konzentrazinoak egiten dabez egunero eta "burrukearen intensidatea handitu beharra baloretan dabiz" LABen arabera.

Negarran be, modu ez ofizialean, kaleratuak egongo dirala jakin arazo dau enpresek. Hitzarmena dala eta, burrukan dagoz Lemoako Inbisa eta Euleneko autobus eta jolaslekuetako begiraleak. Lemoako Inbisa garbiketa enpresea hitzarmena sinatzeko negoziazioetan dago. Eta badagoz beste enpresa batzuk, txikiagoak hitzarmena sinatu barik daukienak.

"Arratiako egoera larria da, ikusten dogu hobera ez doala eta 2014a gogorra izango dala. Momentuz itzalaldia egon zaneke egoera bardinean edo txarragoan gagoz" dino Ariane Elejabarrieta LAB sindikatukoak. Elejabarrietaren arabera, enpresa "potenteenatarikoak" greban dagoz eta honek eragina dauka enpresa txikitian, komertzio eta tabernetan, ze enpresa honeetako jente asko Arratiakoa bertakoa da.

Lanpostuak galtzean

Lanpostuen galera hau, Lanbideren estadistiketan be ikusten da. Holan, langabezi-tasa BEGITUren eremuan % 11,96koa zan 2013ko hirugarren hiruhilekoan, Bizkaikoa baino bajuagoa (% 17,86). Dana dala, % 18,53ra heltzean zan Bedian. Gainera, urte baten, 1,27 puntu igo zan, batz beste, langabezi-tasa Arratia, Ubide eta Zeberion. Goranzko joerarik handiena Zeberion (% 3,01) eta Bedian (% 2,73) izan eben. Areatzan (% -0,21), Ubiden (% -0,29) eta Zeanurin (% -0,39), bariz, jeitsi egin zan langabezia 2012tik 2013ra.

Lan hitzarmenak

Lanpostu asko galdu dira eta burrukan dabiz Arratian lanpostuak defendatzeko, baina ez horretarako bakarrik. Izan be, lan baldintzak be txarrera egin dabe enpresa askotan lan hitzarmenik ez dagoalako. "Lan hitzarmenak beharrezkoak dira lan oreka bat mantenduteko. Oraingo estrategia da horreek desagertzea eta indarra patronalari emotea. Horretarako dagoz Madrilan ebatzitzeko erreforma guztiak eta aurreikusten diranak" salatuten dau Elejabarrietak. Holan metalgintzan, esate baterako, indarrean dagoan hitzarmena 2001-2003 eta 2008-2011koa da. 2013ko lan hitzarmenik ez dago.

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak

Olaetxe
Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

bbk

ARA OTZ
Lanpostuak Galtzean!
Partzu Ligarana 2 de - Adifiti Ote - Ibaika - www.aramoto.com

EDER ATXUTEGI

Bostonen ebakuntzea eginda, etxean da Eder

Etxean dira, Areatzan, Bostonetik bueltan Eder Atxutegi eta bere familia, Eder umeari bihotzeko ebakuntzea egin ostean. "Zuzenketea osoa eta behin betikoa da. Bihotza perfektu dauka orain, guztiz ondo" azaldu deutso Josune Berruetak, Ederren amak BEGITURI. Ebakuntzearen ondoren, guztiz osatu eta indarrak errekueretako sasoia da orain.



Boston.

Erredakzioa

Guztiz ondo egoteko, denporea beharko dau umeak. Izan be, ebakuntzearen ondorioz, arritmia batzuk ditu bihotzak, eta tratamendua ipinteko talde lanean dabiz Gurutzeta Ospitaleko medikuak eta Bostongo Children's Hospital-ekoak. Pausu-markagailu bat be ipini deusie eta zazpi urterik behin aldatu beharko deusie.

Dana dala, kardiopatia sendatuta, umearen bizi-kalitatea asko hobetuko dala eta gitxi barru bizi-modu normala egin ahal izango dauala espero dabe Ederren inguruko danak.

Boston Children's Hospital

Eder, "bihotz berezia" eta anatomia diferente bategaz jaio zan eta eskoiko birrikak eta bihotzak ez eben funtzionetan behar dan

moduan. Jaio eta hamazazpi egunetara lehenengo ebakuntzea egin eutsien umetxoari Gurutzeta Ospitalean eta bi urte eta erdigaz beste bat.

Harrezkeroztik, askotan egon da Eder ospitalean eta bihotz eta birika transplantea emoten eben urtenbide bakartzat Europako medikuak. Parisen be, sintomak arintzeko ebakuntza bat baino ez eben posible ikusten. Baina Bostonen beste urtenbide bat emon eutseen Eder eta bere familiari. Holan, 2012an, ebakuntza bat egin eutsien eta eskoiko birika funtzionetan hasi zan. Eta 2013ko zemendiaren 6an, bihotzeko ebakuntza egin eutsien kardiopatia osatzeko. Abenduaren 14 eta 15eko astegoienean, Boston itxi eta Areatzara bueltau ziran Eder eta bere gurasoak, etxean guztiz errekueretako.

Estadu Batuetako umeen ospi-

taleen 2013-2014ko rankingean, lehenengo postuan dago Boston Children's Hospital kardiologia eta bihotzeko ebakuntzai jago kienean. Del Nido doktoareen ekipoak egin eutsan Areatzakoari ebakuntzea eta Marx doktoareak, kardiologoak, ebakuntza osteko probak eta segmentua. Orain Gurutzeta medikuak hartu deutsee txandea Bostongoai.

Epoepia bat

Epoepia bat izan da orain arte Areatzako familia honek bizi izan dauana, Homeroren *Iliada* poemaren antzekoa. Burruka gogorra gaixotasunaren kontra, Bostongo ebakuntza pagetako diru asko behar zan... Troiako heroiak legez, Areatzakoak ez dabe etsi eta danari egin deusie aurre.

Diez cuentos para Eder izen-

pean *Iliadaren* adaptazio bat egin eban Rosa Hernandez, Ederren amamak eta latin eta grekoko katedratikoak, eta gurasoak liburu argitaratu eta salgai ipini eben. Sei mila ale ipini zituen salgai eta bigarren argitalpena egin behar izan dabe. Liburu hau eta honen jarraipena dan *El pequeño lulo*, izan dira dirua biltzeko kanpainaren ardatzak. *Diez cuentos para Eder* izena izan dau dirua batzeko ekimenak eta izen honegaz familiakoak web gunea eta facebooka sortu ebezan. Ibilaldian Ederren gurasoak salmahai bat euki eben Portugaleten liburu saltzeko eta Bizkaia Bilbao Basket-eko jokalaria liburu bana eskuan agertu ziran maiatzean.

Ondino be geratzen dira liburuak saltzeko eta hemendik aurrera liburu honeen salmentegaz lortzean dan dirua, Bihotzez alkaterearen bitartez, antzeko preminak dituen familientzako izango dala emon dabe jakitera Ederren blogean. Bihotzez, Euskal Herriko kardiopatiadun umeen gurasoen alkatere da, 2011n Josune Berruetak sortu ebana eta bertan 60 familia inguru dagoz.

Beste kultura ekitaldi batzuk be balio izan dabe ebakuntzarako dirua batzeko. Areatzan jai bat eta motor konzentrazioa antolatatu zan igazko garagarrian, berbarako; Boluetako Fever aretoan kontzertua egin eben bagilan; zozketak, merkadu txikiak, futbol partiduak eta abar.

Abenduaren 14 eta
15eko astegoienean,
Boston itxi eta Areatzara
bueltau ziran Eder eta
bere gurasoak etxean
guztiz errekueretako



Del Nido doktoarea.

946.319.008
658.195.091

GALANTA
zure barruko arropa

M. JOSE
barrutik janzen zaitu

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

www.facebook.com/galanta

HERRIKO BENTA

HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (BURKAO)
Tel. 94 631 72 56

Agirre

Pellet eta egur salmenta

616683613 (Iker)
ikerdima@yahoo.es
Igoneko Industrialdea
F11-3B

Berezitu
Gluten eta laktosa bako
ogi eta gozokiak

Bertan eginda
Murrizketa Doko gogoko kapritxoak
Eskasak hartzean dira

Lehendakari Agirre Elorbidea, 11 - Igome
Telefonoak 945 737 280 eta 692 316 166
www.berezitu.com - berezitu@hotmail.com

Berezi tu

ROSA HERNANDEZ

"Eder heroi txiker bat da"

Rosa Hernandez, Ederren amama, latin eta grekoko katedratikoa da. Berak egin eban *Iliadaren* adaptazioa *Diez cuentos para Eder* titulupean. Hau izan da, Bostonen Eder operau ahal izateko kanpainaren ardatza.

Zergaitik *Iliada*? Zer paralelismo dauka Homeroren poemak Ederren bizitzegaz?

Eder jaio zan egunean, poesia bat idatzi neutsan. Nire lehenengo iloba zan eta momentu haretan sentidu nebana ezin da deskribidu, beste amama batek baino ezin dau jakin. Laster jakin genduan gaixotasun larri bat eukala. Umeak zelan egiten eban burrukan bizitzeko ikusita, heroi txiker bat zala pentsau neban. Heroi hau lulo zan, Troiako batailatik bizirik atera zan Eneasen semea. Ederrentzat idatzi neban hurrengo poemak "El pequeño lulo" titulua eukan.

Erakutsi behar neutsan Ederreri nor zan lulo, Eneasen semea, troiar txikia, ulertu eban zein zan bere eginbeharra bizitzan eta Erroma izango zanaren sorkuntzan. Eta luloren gurasoak, Eneas eta Creusa, eta bere osaba-izekoak Paris, Helena, Hector, Casandra eta Andromaca hasi ziran *Diez cuentos para Eder* osotuten. Troiako gerrako gertakizunen kontakizuna, protagonisten ikuspuntutik kontetan da, honeek umeak ziranean gertatu bazan be.

Pentsau neban trilogia bat idaztea, lehenengo partea *Diez cuentos para Eder* da; bigarrena, *El pequeño lulo*, eta hirugarrena *Querido Cesar*. Hirugarren hau, ondino ez da argitaratu baina idatzita dago.

Gainera, beti pentsau izan dot, umeai gure zibilizazioaren hastapenen barri emon behar jakiela, Greziaren barri hain zuzen be.

Umeak erakutsi dau bai, heroi bat dala baina zelan lotu hau eguneroko erreallitateari? Berak zelan bizi izan dau eta zelan bizi dau hau danau?

Eder heroi txiker bat da, oso ume adorea da eta gertatzen jakon guztiari adorea egiten deutso aurre. Bere bizitza gurea balitz moduan bizi dogun nagusioi erakusten deusku zelan egin aurrera. Berak esaten dau honetatik be urtengo dala, beti egin dauan moduan. Eta bere barretxoak bere alde burrukan segiduteko indarra emoten deusku.

Eder sano ume argia da eta sufridu dauanak heldutasuna emon deutso. Bera hasi jatan beretzako ipuinak idazteko eskatzen. Bere personaje faboritua Heracles zan. Asko gustetan jakon 50 buru eukazan Lernako Hidraren istorioa, telefonoz deitzean eustan barriro kontetako, lau urte baino ez zituanean.

Gero beste greko eta erromatar istorio batzuk kontetako eskatu eustan. Eta pentsau neban mendebaldeko literatura guztiaren oinarri diran abenturen protagonistak ezagutu behar zituala.

Egorea hobeto eroateko balio izan deusue Homeroren poemak?

Jakina, uste dot danok ikasi geinkela besteen bizipenetatik, haren bizitzak kondaira

eta historiaren artean egonda be, ze giza portaera guztien arazoak beti bardinak dira: poderea, ekonomia eta maitasuna.

Nik gura neban eta gura dot Ederrek maite dogun guztion maitasuna sentidutea eta jakin dagiala gure motibazioa berarenganako maitasuna dala. Seguru nago holan dala, bere irribarra ikustea besterik ez dago.

Esango zeunke lituratureak biziten lagunduten deuskula?

Literatura gizarte baten kezken espilua da. Troiako gerrea, Mediterraneoan podere komertziala izateko burrukea izan zan. Eta zelan azaldu ume bateri kondairak beti agozko tradizioak goratutako benetako gertakizunetan oinarritzen dirala? Ipuinen bidez. Honeetan itaun egokien bitartez umeak ikasgai praktikoak ikasten dabez: gusaoakanako maitasun eta errespetua, fidelitasuna, adiskidetasuna, eta abar. Ederrek indartsu egin gaitu. Heldutasun handia dauka eta ume bat baino gehiago, nerabe bat da orain.

Esan gurako neuke, kardiopatiak edo beste gaixotasun larriak sufriduten dabezan umeen alde segidu behar dogula burrukan.



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)

KARCHER
Banatzaile ofiziala

- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

ERRUGBIA

Hasi da igoera fasea

Ainhoa Duñabeitia

Zekorrek bigarren mailara igoteko lehenengo norgehiagokea jokatu eban hilaren 12an domekaz.

Mailaz igoteko faseko taldeak sortuta dagoz, Zekorrek taldeari Baztan, Atletico San Sebastian, Hernani, Ampo Ordizi RE eta La Unica taldeak tokau jakoz.

Denporaldi osoan zehar partidu

itzelak egin ostean ez eben suberte onik euki aratarrak euren atzenengo partiduan. Nagusi izan ziran Hernani B-ko jokalaria neurketa osoan zehar. Errez irabazi eban, gipuzkoarrak bederlatzi entsegu lortu ebezan, gureak barriz bat be ez. Hurrengo norgehiagokea etxean jokatu dabe Zekorrek Ampo Ordizi RE-ren aurka, hilaren 19an hain zuzen be.



Arratiko Zekorrek.

ESKU PELOTEA

Dimako pelota eskolako loteriak saria dauka

Erredakzioa

Dimako Txumuluxeta Kultur eta Kirol Elkarteko Erregetako loteriak saria izan dau. 75.810 zenbakia saritua subertau zan eta

papeleta bakotzak 8 euroko saria dauka. Txumuluxetakoak hilaren 20 eta 22an boletoak jaso eta dirua 27 eta 29an pagauko dabe herriko frontoian, 17:30etik aurrera.

ZIKLO-KROSA

Euskal selekzioak urrezko domina Espainiako Txapelketan

Erredakzioa

Segorben (Valentzia), urtailaren 10, 11 eta 12an jokatu zan Espainiako Txapelketea eta arratiarririk podiumean egon ez bazan be, oso papel ona egin eben kategoria guztietan. Javier Ruiz de Larrinaga izan zan Espainiako txapeladuna eta Julen Zubero lemoaztarrak zortzigarren egin eban.

Zirkuitu teknikoa eta arrisksua izan zan, sano siku eta arina. Julen Zuberoen zortzigarren postu horrezaz gainera, aitatu behar dira masterrak egindakoak. Opel Ibaiganeke Jose Antonio Mazairak bosgarren egin eban Master50 kategorian eta Manu Quintanilla igorretarrak bederatzigarren Master40an.

Mikel Epalza (Master30) hogeigarren postuagaz konformau behar izan zan eta Dimako Naia Alzolak (elite andrak) hogetabigarrenagaz.

Ormaiztegin podiumean

Astebete lehenago, urtailaren 5ean, Ormaiztegin (Gipuzkoa) podiumean egon ziran Naia Alzola eta Mikel Epalza. Biak hirugarren sartu ziran-eta helmugan, baxta bere kategorian. Aitatzekoa be bada Manu Quintanillaren laugarren postua lasterketa gogor honetan.

Ormaiztegin zirkuitua gogorra eta teknikoa da eta lasterketa



Mikel Epalza.

egunean hotz egin eban eta euria be bota eban, berez gogorra dan zirkuitua arean gogorrago eginez.

Duranan Quintanilla txapeldun

Bezperan Duranan (Araba) jokatu zan ziklo-kros proban, txapela Arratiara ekarri eban Manu Quintanillak eta bigarren heldu ziran Jose Antonio Mazaira eta Mikel Epalza. Elite mailako probarik ez zan egon.

Eguaraldi txarrak, momentu batzuetan euriak eta eblen haize zakarrak, esfortzu handiagoa egitera behartu zituan ziklo-krosariak. Arratiarrak baina sano ondo ibili ziran, emoitzak erakusten daben moduan.

SOKATIREA

Euskal Herriko Goma Gaineko zortziko Txapelketea martxan da

Erredakzioa

Hasi da Goma Gaineko zortziko Txapelketea eta 680 kiloko proba bakarria eta finala jokatu zan urtailaren 12an. Aian izan zan proba eta bertan Sokarrik hirugarren egin eban. Bezperan, Laukizen,

640 kiloko sailkapen jardunaldian, lehenengo postuan geratu zan Arrigorriagako taldea, Napurrakaz bardinduta. Badaiotz, barriz, hirugarren geratu zan andrazkoen 540 kiloko proban. Arrigorriagako Sokarri taldean Zeberio Galder Gobantes tiralaria dago eta Gas-

teizko Badaiotzen Lemoako Ruth Linaza.

Zezeilaren 20tik 23ra, Irlandan Munduko Txapelketea jokatu da.



begitu

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

Pinturas Arratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

BIXER
TABERNA

Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Orre

FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 1.
48110 Igorre (Bizkaia) - Tfnoa: 94 673 64 38

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igore
94 631 52 26

umean moda

sew

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

AKITEGIA

GAY & LORA

IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONTSURTAN
ONDASUN HIGEEZINEN
ASIGURUTAN

Beltza Arria, 3 Tfnoa: 94 673 71 61 - Faxa: 94 673 94 61 - 48140 IGORRE

axular

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: cbras@constuccioneseekin.com

ARRATIA AUTOSKOLA

Kameta eskola zain ondoz

Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
Telefona: 94 631 36 31 Faxa: 94 673 70 83
e-posta: unozulu@euskalnet.net

FUTBOLA



Luis Prieto Lagun Taldekoak urtekera baten.

Luis Prieto Lagun Taldea eta Gorbeako Gurutzea Peña Iruñeara

Erredakzinoa

Hilaren 26an, arrastiko 17:00etan, Athleticen liga txapelketako hogeitabatgarren jardunaldiko partidua jokatu dau Iruñean Osasunarena kontra. Eta Luis Prieto Lagun Taldea eta Gorbeako Gurutzea Peña bertan egongo dira talde zurigorria animetako.

Eguneko urtekerea izango da, autobusa Dimatik urtengo da goizeko 09:30ean. Iruñeara heldu eta triki poteoa egin ondoren, bazkal-

tzera joango dira taldekideak. Urtekerea egiteko asmoa daukien bazkideak, izena emon beharko dabe urtailaren 22a baino lehen.

Areatzakoak osteraz zehaztutako aukerak erorteko ordua. Bijaiea 10 euro ordainduko dabe peñakideak. Autobusez bijaiea eta partiduko sarrerea prezio barnean dagoz. Peñakide ez diranak gastu guztiak ordaindu beharko dabez.

Izema emoteko azken eguna urtailaren 19a da, Motxo Tabernan.

FUTBOLA

Arratia martxa onean

Urtea ezin hobeto amaitu eban Arratia andrazko taldeak eta askoz be hobeto hasi.



Arratia futbol taldea.

Ainhoa Duñabeitia

Partidu bi jokatu dabez eta bietan lortu dabez hiru puntuak. Lehena hi-

laren 5ean jokatu eban etxean Tolosaren kontra. Itzel aritu ziran neska urteko lehenengo norgehiagokan, markagailuko azken emoitzea: Arra-

tia 4 Tolosa 0. Hilaren 12an be etxean jokatu eban andrak eta irabazi egin eban 3 eta 2 Berriotxoaren aurka. 15. jardunaldia etxetik kanpo jokatu dabe Mariño liderraren aurka.

Gizonezkoak

Arratiako gizonezkoak 5. postuan jarraitzen dabe; hilaren 4an jokatu eban neurketan hiru puntuak lortu ebezan Lekeitioaren kontra: Arratia 1 Lekeitio 0. Joan zan astegoienean jokaturakoan barriz, hilaren 11n, ez eban punturik lortu, San Ignacio 1 Arratia 0 izan zan-eta emoitzea. Hilaren 19an jokatu daben hurrengo partiduan, arratiarren aurkaria Abadiño izango da.

Gizonezkoen bigarren taldeak barriz partidu bakarra jokatu dau urte hasikera honetan. Lemoaberi izan eban aurkari gazteak. Lemoaberrak gailendu jakozan Arratiari, 1 eta 3 hain zuzen be. Hurrengo norgehiagokoa Gernikan jokatu dabe.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatekoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igerre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igerre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zirkulak

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igoñe Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiako.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

BERBALDIA

Juan Manuel Etxebarria: "Hizkuntza bizimoduaren espilua da"

Urtailaren 3an, Gabon ohituren eta Zeberioko euskerearen gaineko berbaldia emon eban Juan Manuel Etxebarria idazle, irakasle, filologo eta etnolinguistak Zeberioko Batzokian. Liburu asko idatzi ditu Etxebarriak baina gurean akaso ezagunena, *Gorbeia inguruko etnoipuin eta esaundak* (Labayru) da.

Erredakzinoa

Orain, beste ipuin eta leienda bilduma bat prest dauka Zeberiokoak, "ehun barri-emoile" baino gehiagorengandik jasoak. Izan be, berak dioanez, "herritik jaso, barriro herrira bueltetako" egiten dau berak.

Zeberio Haraneko Euskararen Azterketa Etnolinguistikoa izan zan Etxebarriaren doktoretza tesia eta Zeberioko euskerearen inguruan egin eban berba filologoak bertokoakaz. Izan be, "bizi dogun guztia, hizkuntzan geratzen da" eta filologoak hizkuntza aztertuz jentea zelan bizi izan dan ikusten dau.

Zergaitik ospatzen doguz Gabonak fetxa honeetan? Itau horregaz hasi eban irakasleak bere berbaldia. Gaztelera latinaren umea dala eta hau indoeuropeotik datorrela eta mundu horretatik gauza asko hartu doguzala esan eban Etxebarriak.

Abenduaren 21ean neguko solstizioa da eta "K.a. 1.000 urte lehenago keltak egon ziran hemen". Abenduaren 17an jai saturnalak ospatuten ebezan erromatarak eta hor ipinten dira

Gabonak. Beranduago "lehenago siniskerak kristautu egin zituan eleizeak, horri estrato kultural esaten jako".

Kristau aroari hasikerea emoteko, Olentzero

Euskal Herria berandu kristautu zan, X. mendearen inguruan. Aro aldaketa hori, Olentzeroren mitoarene bidez azaltzen da. Olentzeroren mitoarene jatorria On Jose Miguel Barandiaranek jasoten dau bere *Diccionario Ilustrado de la Mitología Vasca*, "Kiximi o el caso de los dioses" ipuinean. Bertan kontetan da, behin, oso aspaldi, Aralar mendikateko Argaintxabaltan jentilak egozala ondo pasetan. Halako baten, argi handi bat ikusi eben zeruan, euren gaita joiana. Bildurtuta jentilik zaharrenengana jo eben, ia zer zan ha itauntzeko. Honek argia ikusi ebanean, "Gureak egin dau! Kiximi jaio da eta gure aroa amaitu da. Bota naizue amildegitik behera" esan eban eta holan egin eben jentilak. Ikusita argia etorrela beste jentil guztiak be igesi joan ziran mendebaldera Arraztaranera heldu arte eta han harri handi batek, tapau zituan danak. Jentillarri deitzean da harri

hau. Danak bat izan ezik. Jentil hau beste epoka barri bat sortu zala esatera joan zan herrira. Olentzero, beraz, ez da personaje baten izena, epoka batena baino.

"Personaje zaharra izatetik, moderno izatera pasau da, kultura modernoari esker. Olentzeroren irudia, kantutik hartuta dago eta kantua nahiko moderno da" azaldu eban Etxebarriak. Olentzero, ikastolen sasoiaren berreskuratu eben eta opariak bananduteko eginkizun moderno emon eutsien. Gauza asko gehitu jakoz personajeari, hasikerako jentil haregaz zerikusia ez daukienak: Mungiako etxea, Mari Domingi nobia edo andrea...

Zeberioko bizitza, Zeberioko euskeran

"Galtzean doguzan berba asko, kultura hori galdu dogulako izaten da. Holan, gaur egun gurean garia ez danez hazten, gariaren kulturako lexikoa edo hiztegia galtzean goaz" esan eban hizlariak.

Zeberioko euskera sano aberatsa da eta Etxebarria eta publikoko zeberiozarrak bertako berbak aitatu zituen horren adierazgarri: zal, tertzioa, irukutzi, arean, heresia, murri, beren-beregi... izan ziran horreetako batzuk.

Berbak bakarrik ez, esaerak be aitatu ziran "haltzaren ondoan, haltza erne" edo "Saldaingo txakurrari pasau jako" modukoak.

Etxebarriak Zeberioko hitanoa be landu eban bere tesian eta bertako hitano zaharra bizirik dagoala esan eban. Aditza, deklinabidea, azentua... Zeberioko euskerearen berezitasunak landu zituen adituak eta publikoak.

IKASTAROAK

Urte barrian ikastaro barriak ipini dira martxan

Erredakzinoa

Ikasturtearen bigarren hiruhilekoan, Igorreko Kultur Etxean Tai Chi, Jantza afrikarrak, Literatura txokoa, Akrobazia aerekoak, Patchwork, Argazkigintza eta Photoshop ikastaroetan emon daiteke izena. Prezioak 30 eurotik 80 euro artekoak dira. Lasarte Aretoko lagun txartelagaz, % 15eko deskontua daukie bazkideak. Ikastaroa aurrera aterateko gitxienez sei personak emon behar dabe izena taldean.

Diman, Yoga, Pilates edo Eskulanak egiteko hilaren 20tik 31ra emon daiteke izena. Ikastarook lau hilabeterako antolatu dauz

Udalak, maiatzera arte beraz, eta prezioak 80 eta 140 euro bitartean dagoz. Yoga ikastaroa eguen goizetan izango da, Pilates martitzen eta eguen arrastietan eta Eskulanak martitzen goizetan.

Lemoan autodefentsa ikastaroa

Zezeilaren 8tik 22ra arte, Autodefentsa ikastaroa egiteko aukerea dago Lemoan. Ikastaroak hiru saio izango ditu, zapatuetan, 10:00etatik 14:00ak arte. Izena emoteko epea zabalik da hilaren 24ra arte eta gehienez 25 lagunek hartu ahal izango dabe parte. Izena 25 baino gehiagok emon ezker, zozketea egingo da.

Igorreko Udalak urte barria hasi dan honetan herritar guztiak animau gura dauz euskerea ikasi edota sakontzen jarraitu dagien. Eskeintza zabala dago, maila zein ordutegi aldetik eta, gitxienez, Udalaren %80ko dirulaguntza jasoten dabe.

ZATOK EUSKALTEGIRA!**Zergaitik ez?**

Prezioa? Dirulaguntza piloa dago: HABErenak, Udalak emoten dauzanak, enpresa askorenak...

Ordutegia? Ordutegi eta modulu eskeintza zabala dago; eta gainera, internet bidez be ikasi leiteke.

Desplazamenduak? Ehundik gora euskaltegi dagoz eta ziur etxetik gertu baten bat dagoala.

Zergaitik, orduan?

Seme-alabakaz komunikatu ahal izateko, telebista euskeraz ikusi ahal izateko, aldizkari hau edo beste batzuk irakurteko, edota liburu bat irakurteko.

Lanean lankideakaz berba egiteko, aisialdian, komertzioetan, jatetxeetan euskeraz berba egiteko... Igorre Kantari kantu poteko abestiak ulertuteko.

Euskereak eta euskal kultureak atek zabalduko deusuz, zabaldu atea, zain daukazu eta euskerearen mundua.

Onurak baino ez daukaz.

Bazatoz?

Igorreko Udala



Juan Manuel Etxebarria Zeberioko berbaldian.

BERTSOLARITZEA

Handienak Zeanurin

Erredakzinoa

Amets Arzallus, Euskal Herriko txapeliduna; Maialen Lujanbio, txapelidunordea; Igor Elortza, Andoni Egaña, Jon Maia eta Unai Iturriaga izango dira Zeanuriko bertso saioan hilaren 19an. Arratiako bertso eskolak antolatu dau saioa, udalaren laguntzaz, eta zitea arrastiko seiretan izango da Zeanuriko frontoian. Gai jartzaile beharretan Eñaut Intxaurrega ibiliko da.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala zortzi bertsolarik jokatu eben eta horreetako lau, -Arzallus, Lujanbio,

Elortza eta Iturriaga- Zeanurin izango dira. Horreekaz batera, Andoni Egaña, Euskal Herriko Txapelketa Nagusia lau aldiz irabazi dauana, 1993, 1997, 2001 eta 2005ean, eta Jon Maia, Txapelketa Nagusiko finalera lau aldiz heldu dana egongo dira. Onenak izango dira Zeanurin.

Publikoaren aldetik be, bertsozaletasun eta bertso kultura handia dagoz Arratian. Urteroterero Arratiako Bertso Eskolak antolatuten dau Zeanuriko bertso saioa Udalaren laguntzagaz eta punta-puntako bertsolariak ekartzen dauz bertara. Frontoia bete egingo da duda barik.



Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio Zeanurin egongo dira.

IRAKURLE KLUBA

Bernardo Atxaga Bediako Irakurle Klubean



Bernardo Atxaga.

Erredakzinoa

Hilaren 29an, Bernardo Atxaga egongo da Bedian, irakurleakaz *Nevadako egunak* (Pamiela, 2013) liburuaren gainean berba egiten. Liburuak 150 "pieza" jasoten ditu eta Renon (AEB) hartutako ohar eta ideetatik sortutako testuak dira. Genero literario jakin batera gatz lotzean dan liburua da *Nevadako egunak*.

Bernardo Atxagak bere familiagaz 2007an Renon egindako egonaldiko egunak kontetan ditu

liburuan, eta Bediako Irakurle Klubean aztertuko dabe. Egileak, leku ezezagun honek pizten dituan jakinminetik abiatzen da eta bestelako oroitzapen eta sentimentuetara egiten dau salto.

Sano desbardinak dira pieza honeek, bai gaiaren aldetik, bai gaiok tratetako ereagaitik, baina kronologia bat jarraituten dabe eta elementu errepikakorrak be badagoz eta errepikatzen diran elementuak emoten deusie koherentzia lanari, Atxagak liburuaren aurkezpenean esan ebaren arabera.

Atxagak nazinoartean be izen handia

Bernardo Atxaga (Jose Irazu Garmendia, Asteasu, Gipuzkoa, 1951) sano ezaguna egin zan 1988an *Obabakoak* kaleratu ebanean. Liburu hau hizkuntza askotara itzuli da eta nazinoarteko mailan ezaguna egin eban. Espainiako Narratiba Sari Nazionala jaso eban lan honegaitik 1989an.

Atxagaren beste lan ezagun batzuk, *Behi euskaldun baten memoriak*, *Gizona bere bakar-dadean*, *Soinujolearen semea* eta *Zazpi etxe Frantzian* dira beste askoren artean.

LASARTE ARETOA

Eriz magoa Igorren

Erredakzinoa

Eriz Magoa hilaren 24an egongo da eta "Birziklapen magia" ikuskizuna eskeiniko dau bertan. Magia ikuskizun hau ikusle guztientzat da eta 17:30ean izango da Lasarte Aretoan.

"Birziklapen eta magiaren laguntzeagaz zenbait hanka-sartze konpontzen saiatuko da magoa, gatz eta pipar ikutuagaz; umore fin eta guzti. Magia, fantasia eta konzieniazinoa" buztartzen ditu ikuskizunak, fantasia eta errealidadea.

Zinegoak zinemaldiko film bat

Hilaren 31n, barikuz, Zinegoak zinemaldiko film bat ikusteko aukerea egongo da Igorren. Zinegoak Bilboko gay-lesbo-trans zinema eta arte eszenikoen jaialdia da. Aurtengoa XI. edizioa izango da. "Zinegoak ekimen zinematografikoa, artistikoa eta kulturala da baina baita soziala eta aldarrikatzailea be eta edizino honetan azken alderdi hau sustatu egin gura dogu" dinoe antolatzaileak.



DUNBA

Giza baloreen inguruko pelikulea

Lemoako JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko 6. mailako ikasleak

Aurreko Dunba baten azaldu genduan legez, gure eskolea, Euskal Herriko beste eskola batzuen antzera, Kubako Guantanamo "Escuela 2 de Diciembre" eskole-agaz senidetuta dago. Helburuak norberaren kulturatik abiatuz, alkar hobeto ezagutzea eta giza baloreak bultzatzea dira.

Lehen pausua "Adiskidetasun liburuak" izan ziran, haurrak eurak egindako liburuak, bakotzak bere herriko abestiak, olerkiak, argazkiak, ipuinak... alkarerri trukatzeko. Eta bide honetatik jarraituz, oraingoan pelikula bat egitea da asmoa.

Unibersalak diran baloreak bultzatuko doguz pelikula honen bidez: alkartasuna, nagusiakanako errespetua, umiltasuna, adiskidetasuna, bardintasuna, maitasuna, arduratsu izatea, eskuzabalta-

sun... eta antzeko giza baloreak adierazo gura doguz Euskal Herriko eta Kubako hainbat ikaste-

txetako haurrak antzetzuko dituen eszena labur batzuen bitartez.

Pelikula egiteko behar dan di-

rua lortu ondoren errodajea hasi da eta guri pelikulearen azken zatia grabetea toketan jaku. Eskola osoa dago buru belarri lanean datorren astean datozalako filmetan eta egia esateko oso urduri gagoz. Hau irakurten dozuenerako gure lana amaituta egongo da eta irrikitan egongo gara pe-



JB Eguzkitza Meabeko ikasle batzuk (6. maila).



likulea noz ikusiko zain.

Pelikula-dokumentalaren izenburua:

"Keinuka mugaz gaindi-Un guiño, un sueño" da eta primizia moduan pelikulearen musikearen zati bat idatziko dogu:

Kaixo lagun, jaso ezazu, gu guztion agurra;

Lurra handia izan arren, gu handiagoak gara;

Elkar ditzagun besoak, anai gaitezen denak,

Norberaren nortasunaz, adiskideak baikara.

Uka, uka... keinuka

Uka, uka... musuka

Uka, uka... keinuka

Gure nahiak burutzeko zu zeu ere bazatoz.

Gora Herrien arteko adiskidetasuna eta ondo izan.

AGENDEA

URTAILAK 16

AREATZA

19:30ean, euskal jantza saioak Udaleko espilu gelan. Praktiketako eta ikasteko saioak doban.

Urtaile osoan zehar artisauek erakusketea Parkearean. Arratia inguruko artisauek.

Neguko aztarnen bila. Familiari zuzendutako ekintza Parkearean.

IGORRE

19:00etan Jai Batzordearen lehenengo batzarra Kultur Etxean.

Hila amaitu arte ikastaroetan parte hartzeako izena emon daiteke.

URTAILAK 17

BEDIA

18:00etan, hilaren 19ra arte, eski urtekera Baqueirara. Udalexe ondoan.

IGORRE

17:30ean, Emakumeen arteko 4. Topaketa interkulturala. Gaia: *Zaintza: zenbateko pisua dauka nire bizitzan, zelako eragina? Eta nork zaintzen nau ni?* Izena emoteko encuentrosinterculturairgorre@gmail.com edo 637 305 675.

19:30ean Igorre Kantari kantu-pote. Txaparro Jatxetetik hasita. Euskera Planak antolatuta.

URTAILAK 18

AREATZA

10:00etan Parkearek antolatuta, Pablo Perezen berbaldia "Hegaztien mundua ezagutzen".

IGORRE

22:00etan, zinea *El capitán Phillips* Lasarte Aretoan.

URTAILAK 19

AREATZA

09:00etan, AKKBk antolatuta, Bargondiarra mendi urtekera. Urreak Indusitik Baltzolako kobetara, nagusiak Indusi-Bargondia-Baltzola. Eleiz portikutik.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Frozen el reino de hielo*. 19:30ean, zinea *El capitán Phillips* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

18:00etan bertso saioa. Amets Arzallus, Euskal Herriko txapelduna; Maialen Lujanbio, txapeldunordea; Igor Elortza, Andoni Egaña, Jon Maia eta Unai Iturriaga

ZEBERIO

Austarri Mendi Taldeak urtekera Suceso-Armañon-Ranero-Pozalagua.

URTAILAK 20

DIMA

Hilaren amaiera arte, ikastaroetan matrikuletako epea. Ikastaroak Yoga, Pilates eta Eskulanak dira. Gitienez 8 pertsonak emon behar dabe izena taldea sortzeako.

URTAILAK 21

AREATZA

20:00etan, AKKBk antolatuta, Euskaldunara urtekera *Adriana Lecouvreur* opera ikustera.

URTAILAK 22

IGORRE

16:30ean, Igorreko Jubiladuak, bazkideen Batzar Orokorra. Igorreko Kultur Etxean.

LEMOA

19:30ean, Jai Batzordeak urteko lehenengo batzarra.

URTAILAK 23

AREATZA

19:30ean, euskal jantza saioak Udaleko espilu gelan. Praktiketako eta ikasteko saioak doban.

LEMOA

20:00etan, Lemoako Korralak antolatuta, Santa Ageda bezperako kantuen ensaioa. Elizondoko Kultur Gunean.

URTAILAK 24

AREATZA

21:00etan, The Quiet Corner taberna, Los Brazos folk-rock taldea.

IGORRE

17:30ean, Eriz Magoaren "Birziklapen magia" ikuskizuna. Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:30ean, Lemoako Haur eta Gazteen XIII. Ipuin

Lehiaketan parte hartzeako epea amaituten da. Liburutegian.

Autodefensa ikastaroan parte hartzeako izena emoteko azken eguna.

URTAILAK 25

IGORRE

22:00etan, zinea *Septimo*. Lasarte Aretoan

URTAILAK 26

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Turbo*. 19:30ean, zinea *Septimo* Lasarte Aretoan.

URTAILAK 28

BEDIA

17:00etan, tailerra: eskulanak birziklautako

materialaz.

URTAILAK 29

BEDIA

17:00etan, tailerra: eskulanak birziklautako materialaz.

19:00etan, Irakurle Kluba. Bernardo Abagaren *Nevadako egunak* komentauko da bertan idazleagaz batera.

URTAILAK 30

AREATZA

19:30ean, euskal jantza saioak Udaleko espilu gelan. Praktiketako eta ikasteko saioak doban.

URTAILAK 31

AREATZA

19:00etan euskal jantza tailerra. "Jotaren inprobisazioa lantzean". Udalak antolatuta Aikoren laguntzeagaz Udaleko espilu gelan.

BEDIA

17:30ean, Pirritx, Porrotx eta Marimotosen ikuskizun barria frontoian.

IGORRE

20:00etan, Zinegoak zinemaldiko film baten emonaldia. Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 1

AREATZA

AKKBk antolatuta, Ezkaraira urtekera eskiatzera.

IGORRE

22:00etan, zinea *Tres bodas de mas* Lasarte Aretoan.

ZEZEILAK 2

AREATZA

10:00etan bigarren omilogia berbaldia Parkearean.

IGORRE

17:00etan, *Ernest eta Celestine* umeentzako zinea. 19:30ean, *Tres bodas de mas* zinea Lasarte Aretoan.



Porrotx Bedia eta Diman

Porrotxek (Jose Mari Agirretxe) berbaldi bi emongo dauz urtailaren 17an Dimako Eleixondo lokalean. 18:00etan, nagusientzat "Umeak eta euskera" izenekoa. Nagusiak berbaldian dagozan bitartean umeak tailertxo bat egingo dabe Dimako Eskolako Gurasoen Alkarteko laguntzeagaz. 18:45ean, barriz, Porrotxek "Kontuak, irriak eta marrubizko muxuak" umeentzako berbaldia egingo dau.

Bedian be egongo da Porrotx, Pirritx eta Marimototsegaz batera, hilaren 31n, 17:30ean frontoian, euren azken ikuskizuna erakusten.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

TXAKURKUMEA SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurrak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

ETXEA ALOKATZEKO EDO

SALTZEKO

Urkuzun (Igorre). Kamarea, bizilekua, kortea eta garajea daukaz. Margari 94 673 72 50.

DANERIK

AREATZAN ETXEA ALOKAIRUAN

180 m² dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau

solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terrazeta. 656 716 560.

INGELESEZKO ESKOLAK

Ingeleseko eskola partikularrak emoten dodaz Bedia eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

TXAKURRENTZAKO LEKU BILA

Nire txakurrak eukiteko leku txiki bat topetan nabil Igorren (680 518 473).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Zeanuriko Udalak eta Arratiako Bertso Eskoleak emondako bina sarrera urtailaren 19ko bertso saiorako.

Rosi Ipiñazar (Zeanuri)
Jose txu Iturriaga (Areatza)



2 Alvaro Rabellik emondako *Naia India Gorrietan* liburua.

Maitane Uriarte (Zeanuri)



g Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Suagaz batera. Ortu, soro. 2.- Dima udalerriko auzoa. (Atz.) Baietza.
3.- Birritan, korotza. Eskubarru.
4.- Otea. Bokala. 5.- Hezoa, bustia.
6.- Lehenengo bokala. Etxe baten sarreraboa. 7.- Gogor. Mugale anitza.
8.- Euskal abizena. Abereak jateko landarea. 9.- Pena handia. Edabe garbi.

GOITIK BEHERA

1.- Umeen berbetan, gozoki. (Atz.) Lasaitu egiten dauen infusinoa.
2.- Oratu. Barazki bat. 3.- Bokala. Amaren errastua, amatara urten.
4.- Sufrea. Apo. Bokala. 5.- Ehuna, tela. Bokala. 6.- Zenbaki bat. Amaiera. 7.- Lana, lanegina. Animalia bat.




Topau baso aldeko zazpi hegaztiren izenak.

D	A	R	M	O	N	U	L	K	A
O	T	X	A	N	G	A	B	E	Z
Z	X	B	R	O	L	E	K	O	A
Z	A	P	E	L	A	T	Z	A	L
O	N	G	I	L	S	O	I	B	O
E	T	X	A	Z	A	T	O	I	R
O	X	E	M	A	I	T	A	N	E
N	A	A	Z	U	A	T	Z	O	M
I	N	O	R	K	E	I	T	A	A
A	G	N	I	A	Z	M	N	K	R
S	O	A	B	L	E	P	O	Z	T
A	R	R	E	M	O	L	H	A	I
E	R	R	U	A	L	O	E	A	N
K	I	A	M	A	Z	T	A	B	E
G	A	L	E	K	A	R	R	A	K

Aspaldiko mito kapitalistak

**A
K
I
M
I
K
O**

A
i
t
z
i
b
e
r



Oparitu BEGITU-lagun!

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

35€, 55€
edo 75
Euroren truke

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO



AINARA ARANGUREN GORTAZAR

"Esan lei janlekua eskolatik kanpoko zeozer dala eta ez da holan, oso momentu aprobetxagarria da umeak hezteko"

Ainara Aranguren Gozaro taldeko kidea da. Arratiako talde honek konsumo eta ohitura jasagarriak daukaz oinarrian, eta lau dira bere helburu nagusiak: osasuna eta hezkuntza, herri ekimen legegilea, baseritarrak eta ingurumena, eta errentagarritasun ekonomikoa. Igiteiek antolatutako jardunaldien barruan, abenduaren 19an berbaldia egon zan Igorren eta Gozarok parte hartu eban berbaldi honen antolakuntzan. Lekeitioko eskolako esperientzia (Jose de la Torre), Ekolapiko (Txema Hernandez) eta ENEEK (Xabier Lejarzegi) egon ziran. Aranguren, proiektu honeguz biziten dabizen esperientzia kontau deutso BEGITURI.

Irati Urien

Zer da, nortzuk zarie Gozaro?

Elikadura, janlekuak, bertako produktuak, ekonomia lokala, elikadura burujabetza, hezkuntzak eta kulturak kezkatuten gaituan taldea da, Arratia mailan sortu dana. Atzen baten ligitiegaz batera sortu zan Gozaro.

Noz hasi zinen beharrean?

Badaroguz urte batzuk, lehenengotan guraso batzuk batuten hasi ginan. Jardunaldi bat egin zan Igorren, eta interes komuna geunkan jentea batu ginan. Hortik, lan taldeak sortu ziran: batzuk lur kudeaketearen inguruan, beste batzuk nekazarien inguruan... eta guk, batez be Dimakoakaz jantokien inguruko egin genduan. Dimakoak adibidez euren kabuz hasi ziran, baina jakingurea herri desbardinetan egon da eta atzenean batutea lortu dogu. Apurka-apurka Arratiako herri guztietan baten bat topetan ahalegindu gara. Zeanurin

esate baterako hiru gara. Areatzakoa eta Arteakoak oraintxe batu dira. Igorren be interesetan hasi dirala esan leiteke.

Arratia mailakoa bada be, baktak bere herrira begira egingo dau lan?

Hori da. Kontua da herri baktak errealidade oso diferentea daukala. Helburua bardina da, baina bideak desbardinak. Jantokien egoerari jagokonean adibidez Zeanurin bertan ez daukagu janaria prestatuteko lekunik, catering zerbitzu bat daukagu. Catering horrek janaria eginda ekarten dau, eskolan berotu baino ez da egiten. Goizeko bostetan prestatzen dan janaria jaten dabe umeak. Diman oster, nahiz eta lehengai be Gascatik ekari, eskolan bertan sukaldatuten dabe.

Zein da helburua?

Ez dogu helburu bakarra ikusten. Aurtan konzienziarino kanpaina bat egiten hasi gara, elikadurearen inguruan daukaguzan kezak jentearengaino heldu arazoteko. Baina ez janlekuen

gaineke ardurea bakarrik. Osasuna eta hezkuntza, herri ekimen legegilea, baseritarrak eta ingurumena, zein errentagarritasun ekonomikoa be badira gure helburuak. Herri ekimen legegileari jagokonean dagoan kudeaketea ez dala egokia ikusten dogu.

Hezkuntza Sailak catering bitartez funzionetan dau. Nahiz eta Nekazaritza Sailatik nekazarien aldeko lana zein bertako produktuen aldeko ekimenak bideratu eta sustatu, Hezkuntza Sailak oztopoak ipini eta laguntzak kendu egiten dauz catering propio bat bideratu ezker, edo sukaldatu gura izan ezker. Koherentziarik ez dago. Nekazaritza Sailatik diru laguntza batzuk emon eta gero Hezkuntza Sailatik diru laguntzak kendu egiten dabez holango ekimen bat aurrera eroateko. Ze zentzu dauka honek?

Zein da egoera?

Eredu desbardinak dagoz. Arazo larriena Eusko Jauraritzak ume baktari jangelarako diru laguntza bat emoten deusala izaten da. Horrek esan gura dau guk Gascari diru bat ordaintzen deusagula, baina gero Eusko Jauraritzak be dirua ipinten dauala. Laurden bat pagetan dogu guk, eta beste hiru laurdenak Eusko Jauraritzak. Orduan, menua, pagetan doguna baino hiru bider karuagoa da. Hau erredu bat da.

Gero, Urduñakoak adibidez, diru laguntza hori jaso baina kudeaketea eurak egitea proposatuten dabe, kanpoko enpresa bateri eskatu beharrean herriko bizimodua eta ekonomia suspertuteko bertakoai lana emonaz. Kontua da zagozan enpresatik urten ezker ez dagoala diru laguntzarik esaten dauala Eusko Jauraritzak. Traba pilo bat ipinten dauz. Araudia beste era batera bideratuteko eskakizuna dago berez, hutsuneak dagozala ikusten dalako baina ez dabe hori aldatzeko jarkerarik erakusten.

Beste aukera bat da hortik urtetea; esatea, diru laguntza barik egingo dogu. Hau adibidez Larrabetzun eta Lekeition egiten dabe. Honeek eurek lortu eta kudeatu behar dabez jagoleak, lehengaiak eta dana, ezelango diru laguntza barik. Dana dala, bardina pagauta kudeatutea lortuten dabe, kalidadezko janleku bat errotan dabe aurrera.

Zuen kasuan, Zeanurin, zein da arazoa?

Zeanurin pasetan dana da asko dirala

garraiodunak, eta honeek oraindino be gitxiago pagetan dabe, beka moduko bat da eta. Eusko Jauraritzak diru hori emon barik, Larrabetzukoak lortuten dabe lau eta piku eurogaz eurak egitea kudeaketa osoa, baina gure kasuan oraindino merkeago izan beharko litzateke eta gatxa da. Diman, adibidez, hori egiteko aukerea egon badago, nahiko konzienziarino dagoz, denporea daroe lanean eta emon ahal dabe pausu hori. Artean, Areatzan eta Zeanurin catering zerbitzu bat ipini beharko geunke, ze ez daukagu sukaldarik. Eusko Jauraritzak bere egunean, ahal izan ebazan guztiak kendu ebazan eta. Guk oztopo handi bat daukagu, ez daukagulako aukerarik catering zerbitzu bat aurrera eroateko eta hori da gure herrietako errealidadea, suterik ez dagoan lekutan cateringa ipini behar da.

Behin Arratiako herri baten lortu ezker erreskadan etorriko leitek bez beste herriak be?

Hori da. Guk onurak bakarrik ikusten deusaguz gai honeri. Herrietako ekonomia sustatu egiten da, tokian tokiko janaria jaten da, kalidadezko eskola erredu bat garatuten da, askoz hobeto jaten da, osasuna bermatuten da, baseritarrak be bizi dira, bertakoa konsumiduten da... Kontua da jentear oraindino ez dauala ezagututen ze inportantzia euki leiken honek. Horregaitik ezagututera emoteko berbaldiak egin dira. Eredu batzuk ikustea ondo dago ikusteko aukerak badagozala. Informauta egon behar gara, konzienziarino. Gainera ikusten da ume baktak diru asko dala eta diru hori ez dakigula non dagoan. Batzuk bost eurogaz gai dira ume baten gastu guztiak kubriduteko eta gero Eusko Jauraritzak hamabi gastetan dauz. Besteak non dagoz? Horreek nok errotan dauz?

Zelakoa da janlekuetakoa janariaren egungo kalidadea?

Eskasa. Gure inguruko gehienagoak esaten dau gurako leukela hobeto jan. Guk badaukagu horren inguruko konzienziarino, argi eta garbi ikusten jaten doguna hobeto dala bertakoa eta sasoikoa izatea. Babak goizeko bostetan egin ezker eta ez dakit zenbateko dimensinotan... Guk planteetan dogun erredua dietista bakte bideratuta dago. Planteamentuak osasuntsuak dira, umeak ondo jaten ikasten dabe.

Lehengai guztiak lortuterik badago?

Larrabetzukoak esaten eben eurak ezin leikiela arraina herrian lortu, orduan kongelata edo dana dalakoa, ekarten dabe. Lekeitiokoak, adibidez, esan euskuen eurak arraina primerakoa daukiela eta euren menuan arrain freskoa sartuten dabe. Apurtxo bat egoeraren araberkoa da. Argi dago egun baten jogurtak euki ezin badozuz erosi egingo dozuzala. Kontua da apurka-apurka ohitura osungarriagoak sartutea.

Hurrengo pausuak?

Zabaltzea, herri guztietako gurasoak jakitea zer dan hau. Horregaitik konzienziarino kanpaina. Kontua da Arratian dagozan egoera desbardinak eta aukerak zeintzuk diran ikustea.



Badakigu Urduñakoak buru belari dabizela honetan eta beste aldarrikapen bat egingo dabela barriro be legea aldatuteko atxikimenduak eskatuaz. Hemen polita izango litzateke hori Mankomunidade mailan egitea, edo herrien baten sikiera. Behintzat herriak edo eskolai aukerea emotea eurek planteetako eta ikusteko ze erredu gura daben ipini martxan.

Zelakoa da jentearen erantzuna?

Igarten da gero eta herri gehienago parte hartzean dabela proiektuan. Zeanurin adibidez denporea daroagu, guraso alkarteagaz be egonda gagoz, guraso asanblean be bai. Baina gero herrietan eritmo desbardinak be sortuten dira. Orokorrean lanean gabiz danok batera, batez be gaiaren inguruan batak besteari lagunduteko eta ideak emoteko, baina gero herri baktak errealidadeari egin beharko deusie aurre bertakoa. Idea danai gustetan jakie baina hurrengo pausua gatx egiten jakie. Lekeitioko zuzendariaren arabera, kontua da sinistutea, pausu bat emotea eta egitea. Arratia mailan Dimakoak dira gai hau aurreratuen daroenak. Izan be urte asko daroez lanean. Gurasoak egon dira, ekonomikoki herrian ze egoera daukien aztertu dabe... kontua da honeek sutea daukiela eta orduan egoera be hobea da. Salto bat emotea falta jakie, ziurtasun bat behar dabe eta hori normala da, gurasoak guztiz ados egon behar dira, inplikauta...

Diman lortuz gero bertan sukaldatu eta Zeanurira ekarri?

Klaro baina hori catering zerbitzu bat da. Interes ekonomikoa dago eta argi dago oztopoak hortik datozela. Zuzendaritzak inpliketea oso garrantzitsua da. Normalean zuzendariak ondo ikusten dau, guk ez dogu euren partetik oztoporik topau baina aldatzea da, eta horrek denporea eskatuten dau. Antxina Zeanurin bazkaria bertan egiten ei zan eta jentear dinoanagaitik ondo jaten zan, baegoan erredu hori. Gero galdu egin zan hori eta gatxa izango da barriro be berreskuratutea. Baina gu duda barik ahaleginduko gara.

Seme-alabak eskolatik urten orduko ikusiko ete dozu aldaketarik?

(Barre egiten dau). Ez dakit, momentu honetan nahiko bultzada handia ikusten dot. Kontua da bildurik ez dala euki behar. Nire galderak dira, ze oztopo ikusten deusazuz honeri? Lana dala? Bale, baina bestela non dago oztopoa?